



IKASKETA ZERBITZUA

COLABORANDO CON LA COMUNIDAD
Y DESARROLLANDO COMPETENCIAS

HITZALDI CHARLA

azaroak 5 noviembre 2015
Salon Juliana Aguirrezabala
E.U de Magisterio - UPV/EHU

Jolas eta Ekinek bultzatzen duen **hezkuntza** eredua, kritikoa, balio solidarioetan oinarriturikoa, aktiboa eta komunitatearekin bat egiten duena da.

Krisian eta aldaketan dabilen jendarteak, **sormena**, **parte-hartzea** eta **ekimena** bezalako erramintak eta trebetasunak eskatzen ditu; baita **herritar** zein **profesional** trebeak eta konprometituak ere.

Hau lortzeko **Jolas eta Ekin Ikasketa-Zerbitzu Solidario** (I-ZS) eredu pedagogikoaz baliatzen da. Metodologia honen bidez inguru hurbilean egindako **proiektu solidario bat** egiten dugun bitartean ikasleen **oinarrizko konpetentziak garatzen** eta **edukiak ikasten** ditugu, **asmo pedagogikoak eta solidarioak** elkartuz.

Metodologia hau zabaltzeko eta hobeto ezagutzeko **IKASKETA-ZERBITZUA. Colaborando con la comunidad y desarrollando competencias Hitzaldia** antolatu dugu. Hau azaroren 5ean UPV/EHUko Magisteritza Eskolako Juliana Aguirrezabala Aretoan izango da eta bertan **Roser Batlle**, pedagogo, I+ZSaren aditua eta Estatuko Ikasketa-Zerbitzu Sarearen Presidentea (aprendizajeservicio.net - roserbatlle.net) egongo da

Ikasketa-Zerbitzu Solidarioa ezagutzeaz eta aztertzeaz gain, **Unibertsitate** mailan dituen edota izan ditzakeen **erabilpenak** miatuko ditugu. Proposamenak landuko dira, parte hartzaileen **iritziak**, **nahiak** eta **ekarpenak**, ikasketa-zerbitzu solidarioarekin batuz.

[Jolas eta Ekin](#), InteRed Euskal Herria, SERSO San Viator eta Gizakien Lurraren proiektua da.

HELBURUAK

1. Ikasketa-Zerbitzuaren oinarrizko terminoak eta honen balio pedagogikoa zabaltzea.
2. Etorkizuneko Unibertsitate proiektu konkretuetan I-ZSa sustatzea.

EGITARAUA

12:00-12:15

Aurkezpena: Jolas eta Ekin eta Gizarte Erantzukizuneko Departamendua [eusk/cast]

12:15-14:00

Hitzaldi/tailer: Roser Batlle. Pedagogoa, I+ZSaren aditua eta Estatuko Ikasketa-Zerbitzu Sarearen Presidentea (aprendizajeservicio.net - roserbatlle.net). [cast]

Film, ariketa eta jolasen bidez Ikasketa-Zerbitzu Solidarioaren inguruko zalantzak eta gakoak argitzen saiatuko gara, eta, aldi berean, I-ZSaren gainean hausnartuko dugu hezkuntza-arrakasta eta gizartearekin konpromisoa lortzeko tresna bezala.

NORI ZUZENDUA

- Ikasleak
- Irakasleak
- Unibertsitateko agente ezberdinak
- Bolondresak
- Interesatuta dagoen edonor

Data:

2015eko azaroaren 5ean.

Lekua:

Juliana Aguirrezabala Aretoa, Magisteritza Eskola, UPV/EHU

Ordutegia:

12:00-14:00

Izen ematea:

Musutruk [lekuak agortu arte]

[IZEN EMATEA ON-LINE](#)

Info +:

945 22 65 95 - jolasetaekin@gmail.com

Antolatzaileak:

JolasetaEkin!!



Languntzaileak:



JolasetaEkin!!



Finantziatzaia/
Financiador:

